

IMANOL BERRIATUA IBIETA: EUSKARAREN OINARRIETATIK OINARRIZKO EUSKARARA

XXI. mende hasiera honetako ohitura da idazleak 100 urte garrenean omentzea. Omentzea, baina, autorea hilik denean. Laster -neuk ezagutzen dudalako 106 urteko euskaldun pare- egilea bizirik dela omenduko dira ehun urteok garrenean.

Iragana gaur eguneko interesguneetatik arakutzen denez, ez nuke esan gura artikulua honetan Imanol erreala eta historikoa bat datozenik; bai, ordea, elkarrekin matxinbraturik doazela.

Gaztaroan, denbora etorri egiten da eta zahartzaroan joan. Guk Imanol ezagutu genuenean -70eko hamarkadaren abiapuntuan- Imanol Berriatuaren denbora joaten hasia zen; Aita Imanol artega bizi zen, burukomintsu.

Berez, txori handia genuen Berriatua, Federiko Krutwigen eragin zuzena jaso zuena: "Jaun honek -euskara eredu- egiazko bidera ekarri ninduen" diosku berak; "Gabriel Aresti bera ere maiz joaten zitzaion frantziskotarren Iralako komentura hitz egitera". (Xabier Kintana, Bidegileak). Horrez gain, Bibliolari jakituna zen, poliglota jantzia eta goien graduko hizkuntzalaria.

Gaur, Elantxobe bakan honetan, itsaso berde baino urdina begira dugula, Berriatuaren gizatasuna, pertsonatasuna hartuko dut gogoan, beti ere, bizitzako ardatzak erlijioa eta euskara zituela argiturik.

Euskalduntzen I, II, III eta Alfabetatzen liburua egin genituenean, testuetako euskara Imanolen galbahetik iragazi ohi zen, idatz tekniketari pedagogoa baikenuen. Guk irakasle onak topatu genuen Euskaltzaindiaren ardurapeko euskararen irakaskuntzan eta hark seminarioetatik-eta aldenduriko gazte-talde prestua. Gure hizkuntzarenganako ilusioa sortu zigun. Guk -nahiz gure eskoletako ikasleek- euskal kontzientzia sutsua jarri genuen praktikan. Giro hori da, kasurako, gaurko irakaskuntzatik so eginik hain desberdin agertzen zaiguna.

Eguneroko jardunean, kide ez eze adiskide ere bilakatu gintuen; zenbait kasutan betikide, ezkondu ere berak egin baikituen. Hori dela-eta, Begoña Bilbaok eta biok esker onaren erakusgarri IMANOL BERRIATUAREN BIZITZA EUSKALDUNTZEAREN EZTANDAN

1970-1980 liburua idatzi eta argitaratu genuen Mendebalde Kultura Alkarteko Ateka Aztergaiak sailean.

Imanol Berriatua Ibieta filmetarako pertsonaia aproposa gerta liteke, batetik, lau kontinentetan aritua zelako: Europan, Afrikan, Ameriketan eta Asian; bestetik, Euskal Herri osoko 100.000 Euskalduntzen metodotako azaletan haren argazkia erakutsi izan zelako. Hartan ere, ez internetik, ez hauteskunderik, ez EITBrik ez genuen urteetan ospetsu-ospetsu bihurtu zelako.

Idazle zorrotzari fisonomia zein tankera anizkoitza eskainiko lioke Aita Imanolek: zigarroa nahiz txokorra ahoan; kafe doblea tabernan; keinuak eta saltoak lagunartean; fraile-sandalia oin hutsak nahiz Athleticen aldeko hotsak; sermoi biribilduak; goizeko 6:30eko telefono deiak; ama Zeferinari egunero zapiz leihora irtenik aurrez-aurreko agurra; aita barkuko kapitaina; arrantzaleen kapilau Dakarrera joanik monja frantziskotarrei esker ateratako argazki historikoak; gerratea; ANAITASUNA aldizkaria, "Imanolek sortu zuen ANAITASUNA(-BIZKAIA)". (2007, J. M. Torrealdei, MKAko jardunaldietako liburuan); Arantzazun euskara batuko aditza lantzen jardun zuena; Israelen hebreera ikasten.

Bestalde, Euskaltzaindiko Oinarrizko Euskarako Batzordean Imanol Berriatua izan zen sortzaile eta arima. Aita Luis Villasante euskaltzainburuak idatzi zuen: "Erbestetik datozen judu adinekoei nola irakasten dieten hebreera -hebreera bat murriztua eta erraza- nahiko du ikasi. Euskal Herria euskaldunduko bada, horrelako tresna baten beharra izango dugula pentsatzen zuen eta tresna hori moldatzera jarri zen" (Euskera 1981,2). Hark moldaturiko HITZ EGIN -First Things First Longman-etik- metodoarekin Iberdueroko 500 ikasle baino gehiago zebilen ikasten eta Oinarrizko Euskararen idatziriko liburuak asko irakurri ziran. Euren artean, Berriatuaren IKASLE ISRAELEN eta ITSASOA ETA NI. Azken baten, euskara errazaren erabilerarako saiorik sendoena eta arrakastarik handienekoduna lortu zuen.

Orain, HITZ EGIN metodoa nahiz haren araberrako irakurliburuak bertan behera lagata daude, ohiturak eta irakasbideak ere aldatuz joan dira-eta. Gainera, Euskal Herrian metodo egoki bezain aurrerakoiak plazaratu izan dira harrezkero. Hala ere, eskari zuzena egiten diot Euskaltzaindiari, erakunde aitzindaria izan zenez gero, antola ditzan Jagon Sailaren barruan-edo OINARRIZKO EUSKARAKO JARDUNALDIAK 2015ean, zeren etorkinak 2014 honetan ere euskaldunon etxe askotan sartzen baitira eta sartu ere egun

onik sinbolikoena ere ahoskatu barik. Beraz, euskara erraza, egokitua, moldatua orain ere behar-beharrezko delarik, Euskaltzaindiak hausnarketa, norabide aintzat hartzekoak eskain ditzake, bai irakaskuntzari, baita komunikabideei begira ere.

Imanol Berriatuaren oinatzei jarraituz, 1970-1980ko Euskalduntzen-Alfabetatzen arloetako pizkunde harrigarrira bihur gaitezke, aldi hartako euskal letren argiei -batez ere argiei- eta ilunei Berriatuarena lako begirada pribilegiatuz so eginik. Finean eta buruan, gaurko euskalgintzako aldats gorak zein aldats beherak erlatibizatzen edo gaur eguneko euskal errutinari aldi hartako militantzia txertatzeko.

Elantxoben, 2014ko uztailaren 19an
Juan Luis Goikoetxea Arrieta